

‘Muga hautsien hegalkak’ eleberriarekin, Ernesto Prat Urzainkik bere trilogia amaitu du

- **Migrazioa, espekulazioa eta erresistentzia txirikordatu ditu bere hirugarren eleberri beltzean.**
- **Pertsonaia nagusiak, Lurra eta Larru izenak atzean utzi, eta Larra deituko dio bere buruari orain.**



Ernesto Prat Urzainki idazlea, Donostian, *Muga hautsien hegalkak* liburuaren aurkezpenean. GORKA RUBIO / FOKU

Garbiñe Ubeda

DONOSTIA— 2017an eman zion hasiera bere trilogia beltzari Ernesto Prat Urzainkik (Berriozar, Nafarroa, 1978), hain zuzen (H)il-beltza beka irabazi eta haren fruitu *Telleria eta gero, zer?* eleberria argitara eman zuenean. Genero beltzean idatzitako lehena izan zuen hura, eta zapore mikatza utzi zion; traman sortutako korapiloak askatzea nekeza egin zitziola eta nobela beltzik ez zuela berriz idatziko esaterainokoa. Denborak mikatza gozatzen erakutsi zion ordea, eta 2024an, zer, eta lehenengoaren segidatzat jo litekeena plazaratu zuen: *Mendeku eskubidea*. Egileak berak esanda, harekin «baketu» zen idazketarekin. Hura plazaratu eta bi urtera heldu da *Muga hautsien hegalkak*, Baztango lurretan girotutako trilogia itxiko duen eleberria, (H)ilbeltza nobela beltzaren asteari lotuta heldu ere, gainontzeko biak bezala. Asteazkenean aurkeztuko du bertan.

Pertsonaia nagusi batek eta berak lotzen ditu hiru eleberriak, aldiko izen berri bat hartzen baldin badu ere: Lurra zuen izena lehen eleberrian; bere burua berrasmatu behar, eta Larru izan

zen bigarrenean; eta orain, berriro ere hutsetik hasi behar izan duela eta, Larra goitizena hartu du. Hain zuzen, mutur batetik bestera eboluzionatu behar izan du pertsonaia gidoiaren hobe beharrez: punka eta drogazalea zena artzain gaztagile bilakatu da; eta rock kontzertuetan dena emanda ibiltzetik, bizitza sano eta ekologiko batera egin du jauzi. «Indarberrituta eta buruz sendo» ageri da orain.

Baina pertsonaiaren eboluzioa ez omen da izan aurrez egindako eskema baten ondorioa. Aldaketarako gakoetako bat irakurleek eman zioten Prati, *Telleria eta gero, zer?* eleberria plazaratu zuenean: «Erran zidaten drogen kontsumoari ez zitziola behar beste garrantzirik ematen. Kritika hori onartu, eta bigarren eleberrian desintoxikatze ahaleaginean jarri nuen pertsonaia». Baina desintoxikazio prozesuetan erorrialdiak izaten dira, eta horietariko batek, hain zuzen, berriz ere bere burua berrasmatzeko bidea eman dio pertsonaiari: «Horrelakoetan aunitzetan egiten den moduan, pertsonaia mendira jo du, zehazki Pirinioetara, eta gazta egiten ikasi du. Horrek Baztanera itzultzeko



«**Pertsonaia mendira jo du, eta gazta egiten ikasi du. Horrek Baztanera itzultzeko parada eman dio**»

«**Mugak hertsiz zituztenean, jendeak barnealdera jo zuen, eta Baztandik pasatu ziren. Errealitate hori jaso dut**»

ERNESTO PRAT URZAINKI
Idazlea

parada eman dio». Izan ere, Baztanen gertatzen da trilogia osoa; egileak zehaztu egin du hala ere: «Eleberriak Baztan jakin batean daude girotuta, postal turistikotik ihesi doan Baztan batean».

Berrasmatzeko berrasmate, iraganeko konpromisoak, borroka eta mamuak berekin ditu Larrak, eta horrek, gazta egiteaz harago, saltsan sartzea eramango du nobelan barrena.

Hiru gatazka txirikordatu ditu Pratek, hirurak ere pandemia betean girotuak. Batetik, lehen eleberri beltzean muina izan zena legoke; hau da, Telleria egitasmo urbanistiko espekulatzaileak eskualdean eragindakoa. Prat: «Funtsean Aroztegiaren arrimuan asmatutako fikzioa da. Ezin da erran hori denik erabat, fikzioak bertzelako erritmo eta tramak eskatzen dituelako, baina hori du oinarria».

Migrazioak eman dio egileari bigarren korapiloa sortzeko bidea: «Mugako herriak migranteen pasabidea izan dira beti, historikoki». Egitate horri pandemiaren eragina gehitu behar zaio, garai horretan girotuta baitago eleberria. Prat: «Irungo Santio zubia eta Biriutuko muga hertsiz zituztenean, jendeak barnealdera jo zuen, eta, Bidasoan

goiti eginez, Baztandik pasatu ziren. Errealitate hori jaso dut, batez ere lehen atalean».

Artozki gogoan

Hirugarren korapiloa osatzeko, hogei urte atzera egin eta artea eta lurraren defentsa uztartu zituen erresistentzia ekintza bati heldu dio. «Itoizko urtegia egin zutenean, Artozki herria hustu behar zutelarik, Euskal Herriko zenbait artistak obra bana eman zuten herrian berean erakusketa bat egiteko, erranez herria hiltzen zutenean arte hori herriarekin batera hilko zela». Hogeituro geroago, Itoizko solidarioek artelan horietariko batzuk berreskuratu zituzten. Egoera horren «prekuela bat» egin du Pratek: «Barneko gorabeheren berri izan gabe, fikziozko aukera bat asmatu dut azaltzeko Artozkiko artelan horiek non egon ziren eta zergatik agertu diren batzuk eta zergatik ez bertzeak».

Elkarreko editore Xabier Mendi-gurenek Praten ikasteko gaitasuna txalotu du: «Lehen liburuan, gauza asko aldatzeko eskatu genion; batez ere, kentzea. Bigarren eleberrian askoz gutxiago eskatu genion, eta hirugarrenean, ia batere ez. Trebatuz joan da ofizioan».

Hiru eleberriak aurrean dituela, pozik agertu da Prat: «Ez naiz nire baitan kabitzen». ●

SAN TELMO MUSEOA

Asteartetik igandera: 10:00-19:00
www.santelmomuseoa.eus



Bisita gidatua

Amazoniak.
Antzinako etorkizuna

10:30 (eus) + 18:00 (cas)

Web bidez lekua erreserbatuta, bisita doakoa da, baina museoko sarrera erosi behar da

STM

San Telmo Museoa